

**Bildutakoak:**

<b>Hernaniko Udaletik</b>	<b>eta</b>	<b>Patxi Iburguren Etxeberria</b>
<b>Lehendakaria</b>		
<b>Andoaingo Udaletik</b>		<b>Pepe Iparragirre Balda</b>
<b>Usurbilgo Udaletik</b>		<b>Iratxe Begiristain Otegi</b>
<b>Urnietako Udaletik</b>		<b>Jorge Segurado Iriondo</b>
<b>Lasarte-Oriako Udaletik</b>		<b>Nuria Fernandez Castrillo</b>

Akta Zenbakia <b>00000001</b>
Eguna <b>2024/02/05</b>
Iraupena -

**Asistentzia teknikoa:**

<b>Idazkari-Kontuhartzailea</b>	<b>Julen Mungia Gorrotxategi</b>
<b>Zuzendaria</b>	<b>Helene del Río Laboa</b>

**Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:**

**Astigarragako Udaletik**                      **Xabier Urdangarin Lasa**

**Gai Zerrenda**

- |   |   |
|---|---|
| 1.- 2023/12/18(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 18/12/2023.   |
| 2.- Laneratze enpresen gaineko lanketa. Udal bakoitzak behar dituen zerbitzuak definitzea.      | 2.- Trabajar sobre las empresas de inserción. Definir los servicios que necesita cada Ayuntamiento. |
| 3.- Eskualdeko energiaren lan-taldearen inguruko proposamena                                    | 3.- Propuesta de Grupo de Trabajo comarcal de Energía   |
| 4.- Hiririk At-ekin eskualdeko mahaien lanketaren egoera azaltzea                               | 4.- Explicar la situación de la mesas comarcales trabajadas con Hiririk At                          |
| 5.- Lantzen ari garen programa desberdinen eguneraketa egitea eta informazioa ematea.           | 5.- Actualización e información de los diferentes programas en los que estamos trabajando.          |
| 6.- Enpleguaren Aldeko Itun Sozialari atxikimenduaren gaineko hausnarketa eta erabakia hartzea  | 6.- Reflexión y decisión de adhesión al Pacto Social por el Empleo                                  |

- 7.- Euskera irizpide aldaketak eztabaidatzea eta onartzea  
7.- Debatir y aprobar las modificaciones de los criterios lingüísticos.
- 8.- Galdera, erregu eta proposamenak.  
8.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

**1.- 2023/12/18(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2023/12/18 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak ontzat eman du. Bozketa horretan Andoaingo, Usurbilgo eta Hernaniko ordezkariak baiezkoa bozkatu dute, eta Urnietako eta Lasarte-Oriako ordezkariak abstenitu egin dira, ez baitziren bilera horretara joan.

Bestalde, Urnietako ordezkariak, akta horretan oinarrituta, esan du orain ez dela Mankomunitatearen beharra Komunikazio eta Euskara teknikari bat kontratatzea, beste lehentasun batzuk daudelako. Lasarte-Oriako ordezkaria ere adierazpen horren alde adierazi da. Hala ere, Idazkari-Kontuhartzaileak esan dio posible dela akta horretan benetan jartzen duenarekin nahastu izana, izan ere, bertan adierazten baita Mankomunitateko komunikazioa eramateko zerbitzua kontratatuko dela eta ez, aldiz, lanpostuen zerrendan hutsik agertzen den funtzionarioa.

Argibide hau ondoren, zalantza argitu da eta aurrera jo dugu.

**2.- Laneratze enpresen gaineko lanketa. Udal bakoitzak behar dituen zerbitzuak definitzea.**

Zuzendariak azaldu zuen gaur Beterri Errotuzeko arduraduna etortzekoa zela beraien laneratze enpresaren aurkezpena egiteko eta, batez ere, azken urteotan Urnieta, Astigarraga, Andoain eta Hernaniko udaletan, eta hein txikiago batean eta plegu bateratutik kanpo, Usurbilen egindako lanen berri emateko. Hala ere, mediku bajaran dagoenez, hurrengo Gobernu Batzarrera etorriko dela adierazi zuen.

Kontua da, oker ez bagaude, 2024. urteko urrian amaitzen dela epea laneratze enpresa horrekin egindako kontratazioa. Beraz, planteatu da bakoitzak bere udalean galdetzeko

ea laneratze enpresa batekin jarraitu nahi den lanean, eta, hala bada, jakiteko zehazki zer konpromezu hartzeko prest dagoen bakoitza (zer lan egiteko, zenbat ordaintzeko prest...).

Horregatik, Mankomunitateak esan die udal-ordezkariei bidaliko diela Beterri Errotuzek eskaintzen dituen katalogo eguneratuak (ideia egiteko zer lan egiteko gai diren beraiek eta baita gainontzeko laneratze enpresak) eta baita ere Beterri Errotuz esleitzeko erabili ziren pleguak.

### **3.- Eskualdeko energiaren lan-taldearen inguruko proposamena**

Zuzendariak Beterri Buruntzako energia lan-taldea sortzeko proposamena plazaratu du, helburu nagusiak izanik horretarako prest dauden udalen artean:

- Energiaren inguruko jakintza partekatzea eta handitzea
- Formakuntza jasotzea eta elkarrengandik ikastea. Hau batez ere dago lotuta udal batzuek energia bulegoa ireki dutelako eta bertan "lehen aukeratik" hartutako langileak jarri dituztelako lanean. Ikusi denez, horietako batzuek formakuntza eta prestakuntza jasotzeko beharrean daude eta eskaera guztiak enpresa berdinari egiten zaizkio, beraz, zentzuzkoa dirudi elkarrekin jasotzeko antolatzea. Formakuntza hori modu bateratuan emateko dago pentsatuta, besteak beste, lantalde honen helburu hau.
- Beterri Buruntzako eskualdeko energia planerako datuak biltzea. Dakigunez, GFAk Mankomunitateari eskatzen dio eskualdeko Energia Plana egiteko eta GFAko Energia-Mahaiaian parte hartzeko.
- Energia teknikari berrientzako aholkularitza ematea.

Honen gainean, Lasarte-Oriako ordezkariak zalantzan jarri du ea Mankomunitateak eskumenak dituen energia alorrean, estatutuetan hori horrela dela argi azaltzen ez delako eta LILEk udalen eskumena dela esaten duelako. Horregatik, azaldu du hau argitzeko Mankomunitateko idazkariaren txosten juridikoa, eta, behar izanez gero, ekonomikoa.

Hernaniko ordezkariak adierazi du ez duela oso ondo ulertzen zertara datorren hau. Aurreko legealdian adibidez energia plana egin omen zen eta gai horiek jorratu ziren. Adierazi du lan-talde honek ez duela asmorik udalen eskumenetan sartzeko (argiteri publikoa...), baizik eta modu koordinatuan lan egitea, eta adibidez, udalen behar bat ("lehen aukerako" pertsoneri formakuntza ematea) asebetetzea.

Lasarte-Oriako ordezkariak adierazi du Mankomunitatearen Estatutuetan ez dela ezartzen Mankomunitateak eskumenik duenik energiaren, argiteria publikoaren eta abarren arloan

(hori agertzen da entregatutako lan-proposamenean). Eta, horregatik, Mankomunitateko idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostena eskatu du.

Era berean, Mankomunitateari buruz iazko amaieran erabakitzeke geratu zen eztabaida irekitzeko eskatu du. Izan ere, aurkeztutako proposamenean aurreikusten da udal-teknikariek ordu asko eman beharko dituztela Mankomunitaterako lanean (hilero bilerak egiten dituen proposamen bat aurkeztu da), eta Lasarte-Orian beti ulertu izan da Mankomunitatea organo independentea dela eta udalerrietarako zerbitzua eman behar duela, eta ez udal-langileentzat Mankomunitaterako lanean aritzea.

Lasarte-Oriako Udalaren ordezkariak uste du Beterri Buruntza mankomunitate bat dela, eta ez eskualdeko garapen-agentzia bat. Beterri Buruntzako zuzendariak azpimarratu du "Eskualdeko Garapen Agentzia" bat dela, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Garapenek hala aitortzen dutelako. Lasarte-Oriako Udalaren ordezkariak azpimarratu du Beterri Buruntza mankomunitate bat dela, hala ezartzen baitute estatutuetan.

Jakina, Lasarte-Oriatik uste dute lehen hilabete hauetan eman behar dela informazioa, baina uste dute Mankomunitatea sortuta dagoela eta badituela teknikariak, zuzendaria, idazkari-kontuhartzailea eta administraria.

Behar denean laguntzeko eta bilera puntualetarako eta abarretarako koordinatzeko prest daude. Hala ere, beren ustez, Mankomunitateak modu independentean eta autonomoan funtzionatu beharko luke, horretarako udalek beren ekarpen ekonomikoa egiten baitute. Gainera, Lasarte-Oriaren kasuan, bai eta beste udal txiki batzuen kasuan ere, gizarte-ekonomiako teknikari bakarra dago, eta, beraz, lan asko du bere udalean; beraz, ez da bideragarria Mankomunitatean hainbeste ordu sartzea.

Andoingo ordezkariak ulertu du Lasarte-Oriak esandakoa, baina gogorarazi dio hasierako fasean gaudela, eta, beraz, udalen eta mankomunitatearen arteko lankidetzeta eta koordinazioa handiagoa izango dela seguruenik.

Lasarte-Oriako ordezkariak berriro esan du prest dagoela teknikariek informazio guztia emateko, baina kezkatuta dagoela, eta bi eremutan laburbildu du:

- Udal-teknikarien lan-karga handia
- Mankomunitatea eta udalen arteko lan modua. Bere ustez, Mankomunitateak modu autonomoagoan lan egin beharko luke, eta gutxiago udal-teknikariek.

Urnietako ordezkariak Lasarte-Oriaren iritzia ere ulertzen eta babesten du, baina ez daki lan egiteko modu hori komenigarria den hasierako fase batean.

Lasarte-Oriako ordezkariak eskatu du hemendik aurrera espediente guztiak idazkariaren eta/edo kontu-hartzailearen nahitaezko txostenekin batera aurkezteko.

#### **4.- Hirik At-ekin eskualdeko mahaien lanketaren egoera azaltzea**

Aurreko puntuari dagokionez, Lasarte-Oriako ordezkariak gauza bera adierazi du. Ez da bideragarria udalek hainbeste ordu ematea Mankomunitateari, eta Mankomunitatea da bere baliabideekin lan egin behar duena.

Mankomunitateko Lehendakariak adierazi du ez zaiola gaizki iruditzen Lasarte-Oriakoak esandakoa, hala ere Mankomunitateak plan estrategiko bat egiteko beharra duela jakinarazi du eta horretarako oso garrantzitsua dela jakitea zer egingo duen Mankomunitateak eta zer Udalek. Horretarako, ondo ikusten du eskualdeko mahaiak osatzea eta lantzea, bertatik honen gaineko ekarpenak interesgarriak izan daitezkeelako. Hala ere, argi geratu da erabaki horren azken hitza politikoa dela, eta ez teknikoa.

Honen harira, Zuzendariak esan du ordezkari bakoitzari bidali zitzaizela eskualdeko mahaien lanketaren orria betetzeko, hala Udal bakoitzari suposatzen dion lankarga ikusi ahal izango da eta lehenengo proposamenean maiztasunaren inguruko aldaketak egin. Jasota Lasarte-Oriako iritzia, eta baita Urrietakoaren iritzia zentzu berean, gai honi buelta bat emateko konpromezua hartu du Mankomunitateak.

Ordezkariek otsailaren 7an deituta dagoen bilera teknikoa mantentzea erabaki dute, mahaien inguruko lanketan teknikarien iritzia jaso ahal izateko.

#### **5.- Lantzen ari garen programa desberdinen eguneraketa egitea eta informazioa ematea.**

Zuzendariak 3. eta 4. puntuaren inguruan sortutako eztabaida ikusita, azalpen labur bat eman du garapen agentzien eta Garapenen inguruan. Garapen, besteak beste, Gipuzkoako garapen agentziek osatzen duten elkarteak dela adierazi du eta entitate horrek askotan garapen agentzia guztiak egitasmo bateratuak edo antzekoak egitera bideratzen dituela, enplegu eta enpresa arloan batez ere. Hau da, garapen agentziek orokorrean antzekotasunak dituztela eta beren ibilbidearen ildo orokorrak ezarriak datozela. GFAk ere garapen agentziak eskualdeko ordezkari diren heinean hainbat lan lerrotan kokatzen dituela adierazi du, beraz, Mankomunitateak lan lerro batzuk behintzat nahiko ezarriak dituela jakinarazi du (enpresan eta enpleguan batez ere).

Ondoren egitasmoen eguneraketa egitea proposatu du, hurrengoak aipatuz:

- Otsailaren 2an eskualdeko teknikarien ekintzailtza lantaldea egon zen. Bertan, Mankomunitateak izango duen ekintzailtza zerbitzua aurkeztu zen eta Udal

bakoitzak gaiaren inguruan dituen beharrak eta zerbitzuak (dirulaguntzak) adierazi zituen.

- Hazilan+: Garapenen bitartez Hazilan+ eta EnpleGu egitasmoetan sartzeko aukera eskaini da. Mankomunitateak Hazilan+ aukera moduan ikusi du, gaur egun Elkar Ekin egitasmoan lantzen ez diren profilentzat bideratuta baitago (formakuntza duten gazteak, helduak, lan merkatutik kanpo denbora luzez egon direnak...), beraz, proiektua Mankomunitatean jorrazteko eskaera egin du. Bestalde, ez du EnpleGun sartzeko aukera interesgarria ikusi Elkar Ekinen oso antzeko egitasmoa delako eta egoera zaurgarrian dagoen jendearentzat eskualdean ekosistema handia sortuta dagoelako.
- ETE Digitala: enpresetan digitalizazioa hobetzeko egitasmoa martxan jarri dugu.
- Ingeniariak: Gipuzkoako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren bitartez eskualdean merkataritza eta ostalaritzari digitalizazio arloan formakuntza saio laburrak eskainiko zaizkio.
- Eskualdeak programa: GFAk aurrekontuen luzapena dela eta 2024rako izango den egitasmoa ireki du eta garapen agentzia guztiok hartuko dugu parte bertan. Enpresekin efizientzia energetikoa landuko da lehiakortasun hobekuntza lortzeko.

#### **6.- Enpleguaren Aldeko Itun Sozialari atxikimenduaren gaineko hausnarketa eta erabakia hartzea.**

Zuzendariak adierazi du Mankomunitateak Enpleguaren Aldeko Itun Sozialean atxikitu ez dela eta haren alde egin zen ekitaldean ez zuela parte hartu, erabaki politikoa dela ulertu zenez hori biltzeko aukera izan arte itxarotea erabaki delako. Hala ere, esan du Itun horretara atxikitzeke epea irekita dagoela, eta hemendik aurrera Mankomunitateak irizten badu bertan izena emateko, aukera dagoela.

Lasarte-Oriako ordezkariak positiboki baloratu du Itun horri atxikitzea, bere helburua kalitatezko enplegu duina baldintza berdinetan sortzea eta bermatzea baita, eta Lasarte-Oriako Udala beti egongo da helburu horren alde.

Andoaingo Udalak, aldiz, ez du hain jarrera positiboa adierazi Itun horren gainean. Esan du benetako Itun bat izan ordez, fatxada moduko gauza bat dela. Hortaz, Andoaingo udala ez da Itun horretara atxikitzearen aldekoa. Usurbilgo ordezkaria ere Andoaingo jarreraren alde azaldu da.

Hernaniko udalak bere Gobernu Batzordearekin honi buruz hitz egin behar duela adierazi du. Horretaz gain, Astigarragako Udalaren ordezkaria bileran falta denez, erabaki da, bozka hau beste momentu baterako uztea eta, beraz, gaur erabakirik ez hartzea.

## **7.- Euskera irizpide aldaketak eztabaidatzea eta onartzea**

Lehendakariak adierazi du Eskualdeko Euskara Batzordeak Mankomunitatearen euskara-irizpideak aurkeztu zituela. Azaldu duenez, Lasarte-Oriako Udalaren ordezkariak idatzi bat bidali du, Mankomunitateko idazkariaren txosten juridikoa eskatzeko, irizpide horien legezkotasunari buruz. Beraz, une honetan ezin dira euskara-irizpide horiek bozkatu mankomunitateko idazkariaren txosten juridikoa falta delako, eta horrekin lotuta, LasarteOriaren irizpide horien legezkotasuna zalantzan jartzen du. Gainera, adierazi du irizpide horien aurka idatzi bat egin zuela, nagusiki, ez dituelako kontuan hartzen azken euskara-irizpideei buruzko azken epaiak.

Beraz, Mankomunitateko idazkariaren txosten juridikoa igorri ondoren, gai horri buruz eztabaidatu eta erabakitzea erabaki dute. Lasarte-Oriako ordezkariak txosten hori alde aurretik bidaltzeko eskatu du, alde aurretik aztertu ahal izateko.

Berriz ere eskatzen du nahitaezko txostenak behar dituzten espediente guztiak (aztertu beharreko gaiak) osorik aurkezteko (nahitaezko txostenekin).

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaida presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

## **8.- Galdera, erregu eta proposamenak.**

Aurreko puntuaz gain, Lasarte-Oriako ordezkariak gogorarazi du aspaldi eskatu zuela eta aldi bereko itzultzaile-sistema erabiltzeko eskatzen duela Mankomunitatearen bileretan, hurrengo Gobernu Batzordetik aurrera, azken epean; izan ere, bakoitzak nahi dituen hizkuntza ofizialetan hitz egiteko eskubidea duenez, eskubidea du eztabaidetan parte hartzeko eta eztabaidak jarraitzeko. Gainera, horri esker, errazago eta kalitate hoberekin egin ditzake ekarpenak. Ezin bada sistema hori jarri hurrengo bilerarako, eskatu bileran parte hartzen dutenei hitz egiteko denok ulertzen dugun hizkuntzan. Gainera, ildo beretik, bidaltzen diren dokumentu guztiak elebidunak izatea eskatu du.

Bestalde, Zuzendariak 3 gaien berri eman du:

- Turismoko diputatuaren bisita bertan behera geratu da berriro. Beste egun bat proposatu duela aste santuan, baina Zuzendariak erantzun dio Udal guztietako ordezkariak egotea nahi duela Mankomunitateak eta Aste Santua garai txarra dela horretarako, beraz, ea beste datarik proposatzeko aukerarik dagoen planteatu da. Diputatuaren berri gehiagoren zain gaude.
- Maitelan beraien kooperatibaren aurkezpena egitera joango da Astigarragako Udalerako Otsailaren 7n. Horren ondoren, gainontzeko udaletatik pasa nahi dute, eta

horretarako Udalek beraien prestasuna adierazi behar dute. Printzipioz bigarren Udal moduan Andoain agertu zen prest bere garaian.

- Bekadunen lege berriaren ondorioz, praktiketako jendea Gizarte Segurantzari altan eman behar izatean ezusteko bat gertatu dela adierazi du. Izan ere, formakuntza jasotzen duen jendeak formakuntza bukatu ahal izateko praktikak egin behar ditu, eta NIE edo NANA ez dutenek ezin dute zikloa amaitu. Horrek, arazo handia dakar gizartean, eta Mankomunitateari dagokionean Elkar Ekin programan, egoera zaurgarrian dagoen biztanleriari bideratuta baitago. Azken finean, Elkarrekin programaren baitan bete behar ditugun adierazleetan murrizketa pairatuko dugu eta horrek finantzaketa murrizketa ekarriko du.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 14:09 minutu zirenean. Idazkari-Kontuhartzaileak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº**  
**Lehendakaria**



### **1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión del 18/12/2023.**

En primer lugar, tras la lectura del acta correspondiente a la sesión de fecha 18/12/2023, la Presidenta somete a votación su aprobación, que es aprobada por la Junta de Gobierno. En dicha votación votan afirmativamente los representantes de Andoain, Usurbil y Hernani, absteniéndose los representantes de Urnieta y Lasarte-Oria por no asistir a dicha reunión.

Por su parte, el representante de Urnieta, en base a esta acta, dice que ahora no es necesaria la contratación de un técnico de Comunicación y Euskera por existir otras prioridades. El representante de Lasarte-Oria también se muestra favorable a esta declaración. No obstante, el Secretario-Interventor le indica que es posible confundirlo con lo que realmente figura en dicha acta, ya que en la misma se indica que se contratará el servicio de comunicación de la Mancomunidad y no al funcionario que figura vacante en la relación de puestos de trabajo.

Tras esta aclaración, se aclara la duda y se avanza.

### **2.- Formación sobre empresas de inserción. Definir los servicios que necesita cada ayuntamiento.**

La Directora explicó que hoy iba a acudir la responsable de Beterri Errotuz para presentar su empresa de inserción y, sobre todo, los trabajos realizados en los últimos años en los ayuntamientos de Urnieta, Astigarraga, Andoain y Hernani, y en menor medida y fuera del pliego unificado, en Usurbil. No obstante, estando de baja médica, manifestó que asistirá a la próxima Junta de Gobierno.

La cuestión, salvo error, es que la contratación con esta empresa de inserción finaliza en octubre del año 2024. Por lo tanto, se plantea que cada uno pregunte en su Ayuntamiento si se quiere seguir trabajando con una empresa de inserción y, si es así, conocer exactamente qué compromisos está dispuesto a adquirir cada uno (qué trabajo está dispuesto a hacer, cuánto está dispuesto a pagar...).

Por ello, la Mancomunidad informa a los representantes municipales que remitirán los catálogos actualizados que ofrece Beterri Errotuz (qué trabajos son capaces de realizar ellos mismos y el resto de empresas de inserción) y los pliegos que se utilizaron para la adjudicación de Beterri Errotuz.

### **3.- Propuesta de grupo de trabajo de energía comarcal**

La Directora presenta la propuesta de creación de un grupo de trabajo de energía de Beterri Buruntza, cuyos objetivos principales son los siguientes:

- Compartir y ampliar el conocimiento energético
- Formación y aprendizaje mutuo. Esto está relacionado, sobre todo, con la apertura de la oficina energética por parte de algunos ayuntamientos, en la que se ha incorporado

personal de "lehen aukera". Como se ha visto, algunas de ellas están necesitadas de formación y todas las solicitudes se realizan a la misma empresa, por lo que parece razonable organizarlas conjuntamente para recibir las. El objetivo de este grupo de trabajo está pensado para impartir esta formación de forma conjunta.

- Recogida de datos para el Plan Energético Comarcal de Beterri Buruntza. Como ya sabemos, la DFG solicita a la Mancomunidad la elaboración del Plan Energético comarcal y la participación en la Mesa de Energía de la DFG.
- Asesoramiento a los nuevos técnicos energéticos.

A este respecto, la representante de Lasarte-Oria cuestiona si la Mancomunidad tiene competencias en materia de energía, ya que no se explica claramente en los estatutos que esto es así y LILE dice que es competencia de los ayuntamientos. Por ello, exige el informe jurídico y, en su caso, económico del Secretario-Interventor de la Mancomunidad para aclarar este extremo.

La representante de Hernani manifiesta que no entiende muy bien a qué viene esto. Señala que en la anterior legislatura se elaboró, por ejemplo, el Plan Energético y se trataron estos temas. Señala que este grupo de trabajo no pretende entrar en las competencias municipales (alumbrado público...) sino trabajar de forma coordinada y, por ejemplo, satisfacer una necesidad municipal (formar a personas de "lehen aukera").

La representante de Lasarte-Oria señala que en los Estatutos de la Mancomunidad no establece que ésta tenga competencias en materia de energía, ni alumbrado público, etc. (que es lo que aparece en la propuesta de trabajo entregada). Y que, por eso, solicita que haya un informe al respecto del secretario e interventor de la Mancomunidad.

A su vez, dice que solicita que se abra el debate que se quedó pendiente a finales del año pasado sobre la Mancomunidad. Porque en la propuesta entregada se prevé que los técnicos municipales tengan que estar trabajando para la Mancomunidad muchas horas (se presenta una propuesta en la que tienen reuniones todos los meses) y que desde Lasarte-Oria siempre se ha entendido que la Mancomunidad es un órgano independiente y que debe prestar servicio para los municipios y no los trabajadores municipales estar trabajando para la Mancomunidad.

Entiende la representante del Ayuntamiento de Lasarte-Oria que Beterri Buruntza es una Mancomunidad y no una Agencia de Desarrollo Comarcal. A lo que la directora de Beterri Buruntza insiste que es "como" una Agencia de Desarrollo Comarcal porque así le reconocen tanto la Diputación Foral de Gipuzkoa como Garapen. A lo que la representante del Ayuntamiento de Lasarte-Oria insiste en que Beterri Buruntza es una Mancomunidad porque así lo establecen sus estatutos.

Por supuesto que desde Lasarte-Oria entienden que el traspaso de información debe darse en estos primeros meses, pero entiende que la Mancomunidad ya está creada y ya tiene técnicos, directora, secretario-interventor y administrativa.

Se muestran dispuestos a colaborar cuando se necesite y a coordinarse para reuniones puntuales... etc... No obstante, opinan que la Mancomunidad debería funcionar de forma independiente y autónoma, ya que para ello los ayuntamientos realizan su aportación económica. Además, en el caso de Lasarte-Oria, así como en el caso de otros ayuntamientos pequeños, sólo hay un técnico en economía social, por lo que tiene bastante trabajo en su ayuntamiento, por lo que no es viable que se introduzcan tantas horas en la Mancomunidad.

El representante de Andoain entiende lo dicho por Lasarte-Oria, aunque le recuerda que estamos en una fase inicial, por lo que seguramente la colaboración y coordinación entre los ayuntamientos y la Mancomunidad es mayor.

A lo que la representante de Lasarte-Oria reitera la disposición a que los técnicos pasen toda la información pero insiste con su preocupación y la ha resumido principalmente en dos ámbitos:

- Alta carga de trabajo de los técnicos municipales
- Mancomunidad y forma de trabajo entre ayuntamientos. Considera que la Mancomunidad debería trabajar de forma más autónoma y menos con los técnicos municipales.

El representante de Urnieta también entiende y apoya la opinión de Lasarte-Oria, pero desconoce si esta forma de trabajar es conveniente en una fase inicial o no.

Se solicita por parte de la representante de Lasarte-Oria que a partir de este momento todos los expedientes se aporten junto a los preceptivos informes de secretario y/o interventor.

#### **4.- Explicar con Hiritk At el estado de elaboración de las mesas regionales.**

En relación con el punto anterior, la representante de Lasarte-Oria manifiesta lo mismo. Que no es viable que los Ayuntamientos dediquen tantas horas a la Mancomunidad y que es la Mancomunidad la que tiene que trabajar con sus propios recursos.

La Presidenta de la Mancomunidad señala que no le parece mal lo dicho por LasarteOria, pero que la Mancomunidad tiene la obligación de elaborar un Plan Estratégico y que para ello es muy importante conocer qué va a hacer la Mancomunidad y qué los Ayuntamientos. Para ello, considera oportuno que se constituyan y se trabajen las mesas comarcales, ya que pueden resultar interesantes las aportaciones realizadas desde allí. Sin embargo, queda claro que la última palabra de esta decisión es política y no técnica.

A este respecto, la Directora dice que se envió a cada representante para que rellenara la hoja de elaboración de las mesas comarcales, de forma que se pueda ver la carga de trabajo que supone para cada Ayuntamiento y hacer cambios en la frecuencia en la primera propuesta. Recibida la opinión de Lasarte-Oria, así como de la de Urnieta en el mismo sentido, la Mancomunidad se compromete a dar una vuelta a esta cuestión.

Los representantes acuerdan mantener la reunión técnica convocada el 7 de febrero para recabar la opinión de los técnicos en la elaboración de las mesas.

### **5.- Actualización e información de los diferentes programas en los que estamos trabajando.**

A la vista del debate suscitado en torno a los puntos 3 y 4, la Directora procede a realizar una breve exposición sobre las agencias de desarrollo y Garapen. Señala que Garapen es una asociación integrada, entre otras, por las Agencias de Desarrollo de Gipuzkoa, entidad que a menudo destina a todas las Agencias de Desarrollo a la realización de proyectos conjuntos o similares, especialmente en el ámbito del empleo y la empresa. Es decir, las agencias de desarrollo tienen en general similitudes y vienen marcadas por las líneas generales de su trayectoria. Señala que la DFG también ubica a las agencias de desarrollo en diferentes líneas de trabajo como representantes comarcales, por lo que informa que la Mancomunidad tiene al menos unas líneas de trabajo bastante marcadas (sobre todo en la empresa y en el empleo).

A continuación, propone realizar una actualización de los proyectos, señalando:

- El 2 de febrero hubo un grupo de trabajo de emprendimiento de técnicos de la comarca. En ella se presentó el servicio de emprendimiento que tendrá la Mancomunidad y se indicaron las necesidades y servicios (subvenciones) de cada Ayuntamiento al respecto.
- Hazilan+: Se ha ofrecido el acceso a través de Garapen a los proyectos Hazilan+ y EmpleGu. La Mancomunidad ve a Hazilan+ como una opción, ya que está orientada a perfiles que actualmente no se trabajan en Elkar Ekin (jóvenes con formación, adultos, personas que han estado mucho tiempo fuera del mercado laboral...), por lo que solicita que el proyecto se aborde en la Mancomunidad. Por otra parte, no ve interesante la posibilidad de entrar en EmpleGu porque es un proyecto muy parecido a Elkar Ekin y porque para gente en situación vulnerable hay un gran ecosistema creado en la comarca.
- PYME Digital: hemos puesto en marcha el proyecto de mejora de la digitalización en las empresas.
- Ingenieros: a través del Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Gipuzkoa se impartirán en la comarca breves sesiones formativas en materia de digitalización a comercio y hostelería.
- Programa Eskualdeak: la DFG ha abierto un proyecto con motivo de la prórroga presupuestaria para el año 2024 en el que participarán todas las agencias de desarrollo. Se trabajará la eficiencia energética con las empresas para lograr una mejora competitiva.

## **6.- Reflexión y decisión sobre la adhesión al Pacto Social por el Empleo.**

La Directora dice que la Mancomunidad no se ha adherido al Pacto Social por el Empleo y que no participó en dicho acto, ya que se entendió que se trata de una decisión política y por ello hay que esperar a tomar un acuerdo político al respecto. No obstante, dice que el plazo para adherirse al Pacto está abierto y que si la Mancomunidad considera que a partir de ahora debe hacerlo se puede apuntar al mismo.

La representante de Lasarte-Oria valora positivamente su adhesión al citado Pacto, ya que su objetivo es crear y garantizar un empleo digno y de calidad, en igualdad de condiciones, y el Ayuntamiento de Lasarte-Oria siempre se posicionará a favor de este objetivo.

Por el contrario, el Ayuntamiento de Andoain muestra una actitud menos positiva hacia este Pacto. Dice que en vez de ser un auténtico Pacto, es una especie de fachada. Por lo tanto, el Ayuntamiento de Andoain no es partidario de adherirse al citado Concierto. La representante de Usurbil también aboga por la postura de Andoain.

Indica que el Ayuntamiento de Hernani tiene que hablar de esto con su Junta de Gobierno. Además, ante la ausencia del representante del Ayuntamiento de Astigarraga en la reunión, se acuerda dejar este voto para otro momento y, por tanto, no tomar ninguna decisión hoy.

## **7.- Debate y aprobación de los cambios de criterio en euskera**

La Presidenta señala que la Comisión de Euskera de la Comarca realizó una presentación de los criterios de euskera de la Mancomunidad. Explica que la representante del Ayuntamiento de Lasarte-Oria ha enviado un escrito solicitando el informe jurídico del secretario de la Mancomunidad sobre la legalidad de esos criterios. Por lo que, en este momento no se pueden votar esos criterios de euskera porque falta el informe jurídico del secretario de la mancomunidad. Además, indica que en contra de estos criterios hizo un escrito, principalmente, porque no tiene en cuenta las últimas sentencias sobre los últimos criterios de euskera.

Por lo tanto, acuerdan debatir y decidir sobre este asunto una vez remitido el informe jurídico del Secretario de la Mancomunidad. A lo que la representante de Lasarte-Oria solicita que ese informe sea enviado con tiempo de antelación para que pueda ser estudiado previamente.

Solicita, nuevamente, que todos los expedientes (temas a tratar) que requieran de informes preceptivos, se entreguen completos (con los preceptivos informes).

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente la discusión del asunto, se adoptaron por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Asamblea, los siguientes acuerdos.

## **8.- Preguntas, sugerencias y propuestas.**

Además del punto anterior, La representante de Lasarte-Oria recuerda que hace tiempo ya lo solicitó y que solicita la utilización del sistema de traductor simultáneo en las reuniones de la Mancomunidad, a partir de la siguiente Junta de Gobierno, ya que así como cada uno tiene derecho a expresarse en las lenguas oficiales que desee, también se tiene derecho y a seguir las deliberaciones y participar en los debates. Además, esto le permite realizar sus aportaciones con mayor facilidad y mejor calidad. Si no es posible poner este sistema para la próxima reunión, pide que los participantes en la reunión hablen en la lengua que entendemos todos. Además, en el mismo sentido, solicita que todos los documentos que se envíen sean bilingües.

Por su parte, La Directora informa de los 3 temas:

- Se suspende nuevamente la visita de la Diputada de Turismo. La Directora le contesta que la Mancomunidad quiere que haya representantes de todos los Ayuntamientos y que la Semana Santa es un mal momento, por lo que se plantea la posibilidad de proponer nuevas fechas. Estamos a la espera de más noticias de la diputada.
- Maitelan acudirá al Ayuntamiento de Astigarraga para presentar su cooperativa el 7 de febrero. Tras ello, quieren pasar por el resto de los ayuntamientos, para lo cual los Ayuntamientos deben manifestar su disponibilidad. En principio, como segundo Ayuntamiento, Andoain apareció preparado en su día.
- Indica que como consecuencia de la nueva ley de becarios, al tener que dar de alta a personas en prácticas en la Seguridad Social se ha producido un imprevisto que ha acarreado un grave problema. De hecho, la gente que recibe la formación tiene que hacer prácticas para terminar la formación, y quienes no tienen NIE o DNI no pueden terminar el ciclo. Esto supone un gran problema social y toca a la Mancomunidad en el programa Elkar Ekin, dirigido a una población vulnerable. En definitiva, sufriremos una reducción en los indicadores que debemos cumplir en el marco del programa Elkarrekin por las imposibilidades que conlleva esta ley, lo que supondrá una reducción de la financiación obtenida de la DFG.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria a las 14:09 horas. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno de la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E., / Vº Bº**  
**La Presidenta**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2024BG010001-NURIAK EGINDAKO ALDAKETAK/CAMBIOS REALIZADOS POR